

Psikotxapaldia



INMA ERREA
IDAZLEA

2020ko Euskaraldia amaituta ere, oraindik ikusten dira txapak Iruñeko kaleetan, 2021eko hasiera honetan. Lehen Euskaraldian ere gertatu zen: Nafarroako euskaldun anitzek nahiago izan zuen luzatu *ahobizi*- edo *belarriprest*-txapa eramateko aldia. Funtsezko abantaila bat ikusi zuten: elkar berehala ezagutzea, jakitea txapadun bat ikusi ahala harekin euskaraz mintzatzeko aukera izan zutela. Eta jende frankok erabaki zuen, Iruñerrian bederen, ahalik eta gehien aprobetxatzea egokiera. Nago berokiak kendu eta armairuan gorde arte segitu zutela batzuek txapa jantzita.

Aurten txapa gutxiago ikusi ditut Iruñean lehen Euskaraldian baino, baina hori ere normala da, pandemiak galarazi baitigu kalean gehiago ibiltzea, txapak lagun hiriko euskaldun jendearekin gehiagotan elkartzea, euskaldun (ezagun eta ezezagun) gehiagorekin hitz egitea. Hala ere, oraindik ikusten dira txapak berokietan –nik ere zalantza izan dut: berriro jantziko?–.

Nire buruari galdetzen diot nolakoa izanen den ezezagunekin euskaraz aritzea aurretiko eskanerrik gabe, natural, arbuio-keinu bat edo ezezko garratz bat jasotzeko errezelarik gabe

Iruñean zaila baita euskaraz mintzatzaren hasia, ez bada ezagunekin.

Niri eskaner mentala pizten zait beti. Euskaraz saiatuko naiz? Euskaraz jakinen du? Ez du gaizki hartuko? Eta bat-batean –ez beti baina askitan– nola edo hala (aski izan daiteke “iepa” bat) ohartzen naiz baietz, pertsona horrekin euskaraz hitz egin dezakedala, eta, nolabait, (mintza)lagun dudala. Bi gauza horiek, ohartzeak eta euskaraz egiteko paradak, ustekabeko poza sortzen dute niregan –eta beti ekartzen didate gogora

aitak sentitzen zuen arraidura ospitaleko erizain batek euskaraz hitz egiten zionean–.

Batzuetan nire buruari galdetzen diot nolakoa izanen den ezezagunekin euskaraz aritzea aurretiko eskanerrik gabe, natural, arbuio-keinu bat edo ezezko garratz bat jasotzeko errezelarik gabe. Edo bestearengan enbarazu sortu gabe euskaraz ez dakielako. Gaztelaniaz bezala. Eta esaten diot nire buruari arraro samarra dela hala ibiltzea, zalantzekin, ez mezuaz, baizik eta mezua helarazteko hizkuntzaz.

Lau hamarkada luze joan dira euskaraz hasi nintzenetik, eta gutxitan egin dut euskaraz ezezagun batekin aurrez pentsatu gabe ea izanen dudan horretarako “baimena”.

Horregatik oso ongi ulertzen diet Euskaraldiaren txapa kendu nahi ez dutenei. Arazo psikosozial ugari aurretzen dizkigute txapek: bat ikusita –axola gutxi *ahobizi* den edo *belarriprest*– lasai eta eroso has gaitezke euskaraz eramailearekin. Lasai eta eroso ematen ahal diogu txapa, euskaraz. ●

EuskarAbentura *espedizioa*

IZEN EMATEA ZABALIK!

- Matrikulazio epea zabalik
- Martxoaren 12ra arte

▶ www.euskarabentura.eus

Babesleak

Laguntzaileak

Hedabide laguntzaileak